

UDAL-BATZARRA

UDAL-BATZARRAK, 2003KO UZTAILAREN 10AN EGINDAKO OHIZKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALAKTE-LEHENDAKARIA:
FIDEL AZPIROZ ARRILLAGA

ZINEGOTZIAK:
JOSE IGNAZIO OTERMIN
MIKEL ZUBILLAGA
SILVIA DOS SANTOS
KEPA DE LA IGLESIA
M^a CARMEN EGURZA
JESUS M^a ARSUAGA
NIEVES ALARCOS

IDAZKARIA:
Garikoitz LEKUONA IZETA

ANOETAko Udaletxean, 2.003ko uztailaren 10an, arratsaldeko ZAZPI T'ERDIAK direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizkanpoko bilkura egin asmoz Fidel AZPIROZ ARRILLAGA Alkate Jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; eta neuk, Garikoitz LEKUONA IZETA Idazkaria.

1.- Talde Politikoaren osaketa

Alkate jaunak partaideei adierazi die, lehendabizi talde politikoen osaketa egin beharko dela eta kontutan harturik talde politiko bakarra dagoela ondokoa adierazi du:
Udal talde bezela talde bakarra osatuko dugu eta bere izena EAJ-PNV / EA izango du.

Eta bozeramale lanetan ariko direnak hondoko Zinegotzi hauek izango dira:

Titular bezela: José Ignacio Otermin
Ordezkarri lanetan berriz: Silvia Dos Santos

2.- Batzorde Informatzaileen eraketa, osaketa eta eskumenak

Alkate jaunak adierazi die partaideei, Batzorde Informatzaileen eraketa, osaketa eta eskumenak tratatuak izango direla puntu honetan.

Alkate jaunaren proposamenez, honako Batzorde Informatzaileen eraketa eta osaketa onartzen da aho batez:

PERSONALGO BATZORDEA

Batzorde bura: Alkatea, Fidel Azpiroz

Ez du maiztasunik fikatuta izango, baizik eta uneko beharretara egokituko da

HAZIENDA ETA KONTUBATZORDE BEREZIA

Batzordeburu: Alkatea, Fidel Azpiroz

Batzordekide: Ondoko Zinegotzi hauek osatuko dute:

José Ignazio Otermin

Silvia Dos Santos

Mari Karmen Egurza

Kepa de la Iglesia

Bileren Maiztasuna: Hilean behin beharbada

HIRIGINTZA ETA INGURU GIRO BATZORDEA

ETXEBIZITZA PLANA

KIROLDEGIA

HESI ARQUITECTONIKOAK -IGOGAILUAK

INGURU GIROA-AGENDA-21

OBRAK ETA ZERBITZUAK

Batzordeburu: José Ignazio Otermin

Batzordekide: Fidel Azpiroz

Jesus M^a Arsuaga

Juan José Martin

Bileren Maiztasuna: Astearteoro: Arratsaldeko 7 t'erdietan

ONGIIZATE ETA GIZAESKUBIDEEN BATZORDEA

ZAHARREN EGOÍSTA BERRIA ANTOLAKUNTZA

ZERBITZU BERRIAK OSATU

ONGIZATE ARLOAN:

ERRENTA BASIKOA DUTENAK

LANGABEZIA

MARGINAZIOA

EMAKUMEA

Batzordeburu: M^a Karmen Egurza

Batzordekide: Mikel Zubillaga

Nieves Alarcos

Bileren Maiztasuna: Bi astez behin Asteakenaz: Goizeko 10 tan.

KULTURA BATZORDEA

KULTURA

GAZTERIA

AIXIALDIA

KIROLAK

Batzordeburu: Silvia Dos Santos

Batzordekide: Mikel Zubillaga

Juan José Martin

Bileren Maiztasuna: Bi astez Behin Asteartetan: Arratsaldeko 7 t'erdietan.

EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEA

EUSKARA

HEZKUNTZA

TEKNOLOGI BERRIAK

EKONOMIAREN BILAKAERA ETA LAN SUSTAPENA

Batzordeburu: Kepa de la Iglesia

Batzordekide: Fidel Azpiroz

Jesus M^a Arsuaga

Bileren Maiztasuna: Bi astez Behin; Ostegunetan; Arratsaldeko 7 tan

3.- Udaltzaria Osoaren bilkuren aldiakotasuna.

Alkate jaunaren proposamena aho batez onartua izan da:

Orain arte izan ohi den bezala;

- Hilean behin pleno bat egitea da nere proposamena :
- Hilaren lehendabiziko ostegunetan , zazpi t'erdietan
- Eta egun hori jai egikituz gero, hurrengo asteartean eta ordu berean

4.- Udaltzarien ordezkarien izendapenak, erakunde desberdinetan.

Alkateak proposatutakoa onartzen da aho batez:

Ondoko Entitate hauetan Udalaren ordezkariak ondoko zinegotzi hauek eramatea proposatzen dut:

1.- Mendi nekazaritza Elkartea

Ordezkaria: Jesus M^a Arsuaga

2.- Ur kontsorzioa

Ordezkaria: Fidel Azpiroz

3.- Tolosaldea Garatzen

Ordezkaria: Fidel Azpiroz

4.- Herri Irakaskuntza (Anoeta eta Irurako Ikastolen mankomunitatea)

Ordezkariak: José Ignazio Otermin

Silvia Dos Santos

Mikel Zubillaga

5.- UEMA (Udalerrri euskaldunen mankomunitatea)

Ordezkariak: Kepa de la Iglesia

Mikel Zubillaga

6.- Tolosaldeko Enplegu heziketarako eskualdea

Ordezkariak: Kepa de la Iglesia

7.- Tolosaldeko zabor mankomunitatea

Ordezkariak: José Ignazio Otermin

Jesus M^a Arsuaga

8.- Gipuzkoako Baso Elkartea

Ordezkaria: Jesus M^a Arsuaga

9.- Tolosako hiltegi mankomunitatea

Ordezkaririk: Jesus M^a Arsuaga
Nieves Alarcos

10.- Loatzo Musika Eskolako Herri Mankomunitatea

Ordezkaririk: Silvia Dos Santos
Mikel Zubillaga

11.- EUDIMA (Euskal Udalerri Insumisoen Mankomunitatea)

Ordezkaririk: Mikel Zubillaga
Silvia Dos Santos

5.- Alkatearen ebazpenen berri ematea, ondoko gaiei buruz:

- Alkate ordearen izendapena:

DEKRETOA

Anoetan, bi mila eta hiru urteko uztaillak hamar.

Toki-Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 3ko 7/1985 Legearen 20.1.a) artikulua xedatutakoa kontutan hartuz.

Aipatu 7/1985 Legearen 21.2 artikulua eta Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Legearen 41.3 eta 46.1 artikuluek diotenaren arabera.

Dagozkidan eskuduntzak erabiliz

EBATZI DUT:

1. José Ignazio Otermin Garmendia Jna. Lehen Alkateorde izendatzea eta Silvia Dos Santos Leite And. Bigarren Alkateorde izendatzea, biak Udal honetan ordekaritza duen EAJ-PNV/EA Koalizioa talde politikokoak, indarreko arautegiak ematen dizkien eskuduntza eta prerrogatiba guztiakin.

2. Ebazpen honen berri zinegotzi interesatuei eta Udalbatzari ematea egiten den lehenengo osoko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan honen laburpena argitara eman dadila.

3. Ebazpen hau bere dataren hurrengo eguneko eragina izango du.

Honela agindu eta sinatu du Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak, eta neuk, Idazkari akzidentalak fede eman.

- **Udal bulegoen erabilpena:**

DEKRETUA

Anoetako Udalean, mila eta hiruko uztailak hamar.

Udaletxe honetan dauden aretoak ikusirik eta ditudan ahalmenez baliatuz,

EBATZI DUT:

Udal bulegoen erabilpena egun diren araberakoa izatea:

- 2. Zenbakidun Gela: Kudeaketa eta Herritarren Partaidetzarako Batzordearentzat izatea.

- 3. Zenbakidun Gela: EAJ-PNV/EA Taldearentzat izatea.

Guztia, Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate-Lehendakari Jaunak agindu eta sinatu du, eta Idazkari akzidentalak fede eman.

6.- Udalkideen asignazioak kargu publikoa betetzeagatik.

2003rako EUDELeK emaniko irizpideetan oinarrituz ondoko asignazio ekonomikoak proposatu eta onartzen dute guztiek aho batez:

Talde bezela 128,38 EURO hileko.

Zinegotzi bezela 51,35 EURO hileko.

Udalbatzako kide bakoitzeko, parte hartzen duten beren organo kolegiatuetako bilera bakoitzeko (Batzorde informatibo edo osoko bilkurak): 9,62 Euro orduko.

Alkatearen liberazioa egun erdikoa izango denez, lantokiko ziurtagiriaren arabera lantokitik kobratu gabe gelditzen denaren zatia udaletxetik ordainduko zaio.

Aurrerantzean, aipatutako kantitateak, urteko IPCaren arabera eguneratuak izango dira urtez urte.

Alkateak bilkura amaituta eman aurretik zenbait herritarrek hitza eskatu eta Alkateak hala aginduta hitza eman zaie, ondokoa izan delarik beraiek adierazitakoa:

- IÑAKI ITURRIOTZ:

1.- Talde politikoaren osaketari dagokionez.

Anoetarrok auzolanean udaletxean ordezkaria behar du izan 409 herritarrek hala nahi izan dutelako; beraz PNV-EA koalizioako 4 ordezkari eserlekuetatik kanpo egon beharko lukete.

Hori hala izan dadin, legalitatea eta legitimitatea uztartuaz badaude aukerak. Mahai gainean jarri izan ditugu izandako bileretan eta borondate faltagatik baztertuak izan dira eta hauen ordezkariak, herritarren borondatea errespetatu beharrean legedi espainiarra beteko duzue. Beraz puntu honekin erabat aurka gaude.

2- Batzorde Informatzaileen eraketa, eskumenak eta osaketari dagokionez:

- Hirigintza eta Ingurugiro Batzorderako Iñaki Iturriotz izanen da ordezkaria.
- Kultura Batzorderako Gorka Otxaizpuru.
- Euskara eta Hezkuntza Batzordeko ordezkaria Mikel Errazkin.
- Ongizate eta Giza Eskubideak Batzorderako Amaia Goñi.
- Kudeaketa batzorderik ez dute onartzen, herritarrek aukeratu ez dituzten 4 pertsona legitimatzeko tranpa delako eta arazoari muinetik ez zaiolako heltzen.

3- Udaltzaren ordezkarien izendapenak, erakunde ezberdinetan

Herritarrek aukeratu ez dituzten lau pertsonen ordezkariak ez dute onartzen. Partehartzeko formulak badaude eta guk ordezkariak izan dezagun eskatzen dugu.

4.- Komunikazioak

Komunikazioak 48 orduko aurrerapenarekin burutzea eskatzen da, azken plenoaren deiarekin gertatu ez den bezela, horrek gure eztabaidarako aukerari kalte egin bait dio.

Neronek, Idazkariak, hitza eskatu eta Iñaki Iturriotz-i zuzendu naitzaio komunikazioa 48 orduko aurrerapenarekin burutu ez izana nire gaizki ulertze baten ondorioz izan dala adierazteko eta barkamena eskatzeko.

5- Asignazio ekonomikoak

PNV-EAJ/EA-k bost ordezkariari dagokien asignazioa jasotzeko eskubidea dute soilik eta guri lau ordezkariena dagokigu.

Alkatearen asignazioa legala den kezka dugu, aurreko idazkariaren txosten daten arabera; Idazkariari txosten juridikoa helaraztea eskatzen diogu eta bitartean alkatearen asignazioari buruzko gaia mahai gainean uztea.

Planteatutako eskaera eta proposamenen inguruan ematen den erantzuna ezezkoa bada, garbi geratuko da udal honen demokrazia hutsunea eta Anoetarrok Auzolanean taldea isilarazteko ahalegina.

Ondoren Joxe M^a Urkola anoetarrak hartu du hitza:

- JOXE M^a URKOLA:

Gaur goizean Joseba Egibarrek Euskadi Irratian hitz egin du eta hainbat alditan adierazi legearen gainerik herri borondatea dagoel, beraz guk eskaera bera egiten diogu PNV/EA-ri, hau da, anoetarron borondatea jar dezala legearen gainerik.

Jarraian Pedro M^a Peñagarikanok hartu du hitza:

- PEDRO M^a PEÑAGARIKANO:

Egindako bileretan aipatu den gai bat da Anoetarrok Auzolanean taldeak zein espazio fisikoarekin kontatu ahal izango duen udaletxe barnean eta horri erantzutea nahiko nuke.

Alkateak erantzuten dio:

- FIDEL AZPIROZ ARRILLAGA:

Herri partaidetzarako Batzordeari esleitua izan zaion gela izanen dala.

Ondoren Fafael Uribarrenek hitza hartu eta ondokoa adierazi du:

- RAFAEL URIBARREN:

Herri borondatea errespetatu ez izana leporatzen zaio EAJ/EA koalizioari, espainiar legediari men egitea. Aipatu beharra dago Partiduen Legea dela eta martxan jarritako ilegalizazio prozesuaren aurrean, Gasteizgo Legebiltzarrean PNV/EA/IU-k errekurtsioa tarteratu zuten bitartean, PP/PSOE/BATASUNA-k aurka azaldu ziren, beraz ezin zaigu gaur pairatzen den ondorioaren ardura izatea.

Zenbait herri plataformak onartuak izan dira eta hauek lege espainiarra onartu eta bete egin dute.

Egoera honen aurrean, udaletxe honetatik bilerak bideratu dira, herritarren parte hartzea bermatzeko tresna egokiak jarri dira.

Fidelek legitimitate osoa dauka dagoen eserlekuan egoteko eta berarekin batera beste mahaikide guztiak zoriondu nahi nituzke.

Azkenik argitu beharra dago azken puntu bat; alkatearen asignazio ekonomikoarena. Garbi geratu behar du legezkoa dela alkateak proposatutakoa, izan ere udaletxi ordainduko zaiona soilik bere lantegian bete ezin izan dituen lanorduak izango bait dira.

Berriro, Iñaki Iturriotzek hitza eskatzen du:

- IÑAKI ITURRIOTZ:

Rafaelek esandakoaren aritik, berriro ere garbi utzi nahi dut herritarren borondatea errespetatu eta herritarrek parte hartzeko formula legalak egon badaudela eta hainbat alditan aipatu izan zaizu gaia hau, baina finean agerian geratzen dena borondate falta da.

- PEDRO M^a PEÑAGARIKANO:

Rafaren hitzei helduz, garbi geratu behar du guk ez dugula inoiz Fidelen legitimitatea kuestionatu; gure kexa eta kezka beste herritarren ordezkaritza non geratzen den ikustetik dator, herritar guztien hitza eta borondatea ez bait da kontutan hartzen eta PNV/EA-k duten gehiegizko 4 eserlekuan dago legitimitate falta.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate jaunak bilkura amaitutzat eman du, iluntzeko zortzirak direnean; guzti honetaz, ni Idazkari akzidentalak fede ematen dudalarik.